

EUSKADIKO ADIKZIOEI BURUZKO INKESTA 2023:

LAN-EREMUKO AZTERKETA,
GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN
HARTUTA

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Euskadiko adikzioei buruzko inkesta 2023: lan-eremuko azterketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta



Rivera Pinto, Javier; Martín Díez, María Jesús; Gisasola Yeregi, Aitor; Zubia Ortiz de Guinea, Ana Rosa; Raposo Acevedo, Raquel



Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus>

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus>

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus>

Esker onak:

Aldasoro Unamuno, Elena;

Saizarbitoria Madalen;

Echebarria Gonzalez de Garibay, Luis Javier.

Izenburua: Euskadiko adikzioei buruzko inkesta 2023: lan-eremuko azterketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta

Argitaraldia: 1.a 2025-eko azaroa.

Ale-kopurua: 30 ale.

© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi / Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Argitaratzaile: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Camino de la Dinamita, s/n - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Egileak: Rivera Pinto, Javier; Martín Díez, María Jesús; Gisasola Yeregi, Aitor; Zubia Ortiz de Guinea, Ana Rosa; Raposo Acevedo, Raquel.

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Editorial MIC · www.editorialmic.com

Lege gordailua: LG BI 1295-2025

Euskadiko adikzioei buruzko inkesta 2023: lan-eremuko azterketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta

**Rivera Pinto, Javier; Martín Díez, María Jesús; Gisasola Yeregi, Aitor;
Zubia Ortiz de Guinea, Ana Rosa; Raposo Acevedo, Raquel**



AURKIBIDEA

Aurkezpena	8
1. Sarrera: metodologia eta egitura	9
1.1 Sarrera	9
1.2 Metodologia	10
1.2.1 Laginaren diseinua	11
1.2.2 Eremuko lana	14
1.3 Txostenaren egitura	14
2. Emaitzak aldagaien arabera	15
2.1 Adina	15
2.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa	16
2.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa	16
2.4 Ikasketak	17
2.5 Lan-egoera	17
2.6 Lan-mota	18
2.7 Norbait ardurapean	19
2.8 Ardurapekoari arreta ematen pasatzen den denbora	20
2.9 Adikzioei buruzko prestakuntza enpresan	21
3. Emaitzak substantzien arabera	22
3.1 Alkoholen kontsumoa egunean	22
3.1.1 Adina	22
3.1.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa	23
3.1.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa	24
3.1.4 Lan-egoera	25
3.1.5 Lan-mota	26
3.1.6 Ikasketak	28
3.1.7 Beste norbait ardurapean	29
3.1.8 Ardurapekoari arreta ematen pasatzen den denbora	30
3.1.9 Alkoholen kontsumoa egunero: ondorioak	31
3.2 Kalamuaren kontsumoa	32
3.2.1 Adina	32
3.2.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa	34
3.2.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa	36
3.2.4 Enplegua	37
3.2.5 Lan-mota	39
3.2.6 Ikasketak	42
3.2.7 Beste norbait ardurapean dutenak	43

3.2.8	Ardurapeko pertsonaren arretan ematen duen denbora	45
3.2.9	Kalamua: emaitzak	46
3.3	Tabakoa egunero	48
3.3.1	Adina	48
3.3.2	Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa	49
3.3.3	Lanaldia, gauekoa/egunekoa	50
3.3.4	Lan-egoera	52
3.3.5	Lan-mota	53
3.3.6	Ikasketak	54
3.3.7	Norbait ardurapean	55
3.3.8	Arreta-denbora	56
3.3.9	Tabakoa: emaitzak	57
3.4	Psikofarmakoak	58
3.4.1	Adina	58
3.4.2	Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa	59
3.4.3	Lanaldia, gauekoa/egunekoa	60
3.4.4	Enplegua	61
3.4.5	Lan-mota	62
3.4.6	Ikasketak	63
3.4.7	Beste norbait ardurapean	64
3.4.8	Ardurapeko pertsonaren arretan ematen duen denbora	65
3.4.9	Psikofarmakoak: emaitzak	66
3.5	Jokoa	67
3.5.1	Adina	68
3.5.2	Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa	69
3.5.3	Lanaldia, gauekoa/egunekoa	70
3.5.4	Enplegua	71
3.5.5	Lan-mota	72
3.5.6	Ikasketak	73
3.5.7	Beste norbait ardurapean	74
3.5.8	Arretapekoari zenbat denbora eman	75
3.5.9	Jokoa: emaitzak	76
Ondorioak		77
Eranskinak		79

Aurkezpena

Euskadiko adikzioei buruzko inkesta informazio-iturri aproposa da, nagusietakoa, jakiteko zertan diren drogen kontsumoa eta beste adikzio batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Aldizka egiten da, eta bertan jasotzen da herritarrek adikzioen arriskuari buruz duten pertzepzioa eta iritzia. Gainera, adikzioei aurre egiteko neurriak eta haiekin lotutako faktore sozialak ere lantzen dira.

2023ko inkestan, lehen aldiz, zenbait galdera egin ziren laneko aldagaiei buruz, bai eta pertsonen zaintzaz arduratu beharrak eta langileek etxeko lanetan ematen duten denborak duten eraginari buruz ere, kontsumo-ohiturekin lotzeko. Dokumentu honetan inkestan lan-arloaz egindako galderen emaitzak aurkeztuko ditugu.

Lortutako emaitzek erakusten dute lan-ingurunea gizarteko kontsumoen ispilua dela eta, gainera, lan-baldintza edo lan-mota jakin batzuek eragin nabarmena dutela ohitura horietan. Azpimarratu beharra dago kontsumo-ohiturak desberdinak direla gizonen eta emakumeen artean, bai eta adin-taldeen artean ere. Kontuan hartzen badira laneko faktore espezifikoak, hala nola gaueko txandak, hezkuntza-maila, enplegu-egoera eta lan-mota, edo horiekin elkarreragiten duten beste batzuk, hala nola familiako eta etxeko ardurak, argi geratzen da eragina dutela kontsumo-ereduetan.

Faktore horiek guztiak landuta nabarmen geratzen da garrantzitsua dela enpresetan adikzioak prebenitzeko planak sortzea eta aplikatzea, inplikaturako eragile guztien ardurak argitzeko: enpresenak, langileenak eta haien ordezkarienak, eta prebentzio-zerbitzuetako arloetako arduradunenak.

Enpresa bakoitza berezia da; horregatik, prebentzio-planak bakoitzaren errealitatera egokitu behar dira, genero-ikuspegia kontuan hartuta, gizonen eta emakumeen babes-maila bera emateko.

Dokumentu hau OSALANeko Lan-Osasuneko Unitatearen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren arteko lankidetzaren emaitza da, eta agerian uzten du zein garrantzitsua den koordinaturik lan egitea. Gainera, lan-ildo honi eustera bultzatzen gaitu, aberasgarria eta produktiboa baita EAEn adikzioen prebentzioan ari diren guztientzat.

1.

Sarrera: metodologia eta egitura

1.1 Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak sustatuko Euskadiko adikzioei buruzko inkesta 2023 dokumentuari esker drogen kontsumoa eta beste adikzio batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) zertan diren jakin daiteke. Aldizka egiten da, eta bertan jasotzen da herritarrek adikzioen arriskuari buruz duten pertzepzioa eta iritzia. Gainera, adikzioei aurre egiteko neurriak eta haiekin lotutako faktore sozialak ere lantzen dira.

2023ko inkestan zenbait berrikuntza sartu dira: lan-jarduerari eta horren ezaugarriei buruzko galderak. Galdera horien helburua izan da aztertzea lanarekin lotutako inguruabarrek loturarik ote duten kontsumo-ohiturekin.

Beste alde batetik, zenbait galdera sartu dira argitzeko lanaz kanpoko inguruabar jakin batzuek, hala nola langileak bere kargura pertsonak edukitzeak eta zaintzan eta etxeko lanetan egunean ematen dituen batez besteko denborak, eraginik ote duten kontsumo-ohituretan.

Dokumentu honetan 16-64 urte bitarteko herritarren laneko aldagaien inguruko datu garrantzitsuenen laburpena aurkeztuko dugu. Aldagai horiek lehen aldiz sartu direnez, datuetan ez da ageri kontsumo-joerarik; nolana ere, hurrengo inkestetan egin ahal izatea espero da. Inkestako laneko aldagai nagusien emaitzen taulak erantsi ditugu.



2023ko inkestaren erreferentzia interesgarriak hauexek izan dira:

- Euskadiko adikzioei buruzko inkestaren galdetegia
- Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2023. Datuen aurrerapena¹

Erreferentziako beste dokumentu bat ere badago: Encuesta sobre Alcohol y otra Drogas en España, EDADES, ²Osasun Ministerioak egin zuena Drogei buruzko Plan Nazionalaren barruan.

1.2 Metodologia

Atal honetan Euskadiko adikzioei buruzko 2023ko inkestan erabilitako metodologia azaltzen da. Inkesta horren txostenetik, emaitzen aurrerapenarekin batera, azterlan honetarako datuak atera dira. Metodologiaren deskribapen zehatzago nahi duenak EUSKADIKO ADIKZIOEI BURUZKO INKESTA 2023 dokumentuko horri buruzko atalera jo dezake.

Etxez etxeko inkesta da, aldizkakotasun aldakorrekoa (hasieran bi urtean behin eta 2012az gero bost urtean behin), eta gaur egun indarrean dagoen Euskal Estatistika Planaren barruan egiten da. Informazioa biltzeko, trebatutako inkestatzaile batek elkarrizketa pertsonala egiten du galdetegi egituratua erabiliz. Galderen bidez elkarrizketatuari atzera begirako informazioa eskatzen zaio erabiltzen dituen merkatuko legezko eta legez kanpoko droga nagusiei buruz eta jokoarekin dauzkan harremanei buruz.

Inkestaren xedea EAEko herritarren egoera orokorra islatzea da; horregatik, batzuetan, lan-osasunerako interesgarriak diren kategoria batzuetan (sektoreak, enplegu-egoera, etab.) erantzuten duten pertsonen kopurua ez da izan nahikoa balio adierazgarriak lortzeko. Gainera, zenbait aldagai gurutzatzean, batzuetan lagina txikia geratzen da eta, ondorioz, konfiantza-tarteak nahiko zabalak dira.

1 Osasun Saila. Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2023: Datuen aurrerapena. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza [kontsulta: 2025, ekaina]

2 Osasun Ministerioa. Encuesta sobre Alcohol y otras drogas en España. EDADES. Madril: Osasun Ministerioa [kontsulta: 2025, ekaina]

1.2.1 Laginaren diseinua

Euskadiko adikzioei buruzko 2023ko inkestan erabili den lagina Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística) diseinatu du, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eskatuta.

Inkestaren lagin-esparrua Euskadiko familia-etxebizitza okupatuetan bizi diren 15 urtetik gorako biztanleria izan da. Txosten honetan aurkezten den azterketarako 15 - 65 urte bitarteko biztanleria hautatu da. Laginean 1.884 titular egon dira.

Aldagai generikoagoak eta adierazgarriagoak aztertu nahian, Euskadiko adikzioei buruzko 2023ko inkestako galdetegian erabilitako aldagaietako batzuk taldekatu dira: adina, ikasketa-maila, etab.

- **Adin-taldeak:** Lanerako adinean dauden biztanleak 3 taldetan aztertu dira:

> 16-34

> 35-49

> 50-65

- **Ikasketa-maila.** Bi kategoria ezarri dira.

> **Bigarren Hezkuntzara arte;** honen barruan maila hauek daude:

- Ikasketarik ez edo lehen mailako ikasketak amaitu gabe
- Lehen mailako ikasketak amaituta
- Bigarren mailako ikasketak, 1. etapa
- Bigarren mailako ikasketak, 2. etapa

> **Unibertsitate-ikasketak;** honen barruan maila hauek daude:

- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak

- **Enplegua.** Hiru kategoria sortu dira.

> **Landunak;** honen barruan erantzun hauek biltzen dira:

- Lanean dabiltzanak
- Lana badutenak, baina aldi batez lanean ez dabiltzanak (gaixotasun-baja, amatasuneko edo aitatasuneko baimena, etab.)



- > **Langabeak; honen barruan hauek daude:**
 - Langabezian daudenak, baina inoiz lanean ibili direnak
 - Lehen lanaren bila dabiltzanak
- > **Lan-bila ez dabiltzanak; honen barruan kategoria hauek daude:**
 - Erretirodunak, pentsiodunak
 - Ikasleak
 - Etxeko lanetan edo zaintza-lanetan dabiltzanak
 - Jardunik gabeko beste egoeraren bat
- **Lanaldi-mota.** Honako kategoria hauek daude:
 - > **Erregularra:** beti ordutegi bera
 - > **Txandaka:** jardueraren ordutegia aldatu egiten zaio, astean edo hilabetean
- **Lanaldia, gauekoa/egunekoa:** gaueko txanda gaueko 10etatik goizeko 6ak artekoa da. Bi kategoria daude:
 - > **Gauekoa:** gaueko txandan ari diren pertsonak, modu erregularrean edo txandaka
 - > **Egunekoa:** beti egunez lan egiten dutenak, lan-ordutegia aldatu zein ez aldatu
- **Lan-mota.** 7 kategoria sortu dira (nahiz oso zabalak diren eta talde bakoitzaren barruan denetarik lan-baldintzak dauden). Hona:
 - > **ZUZENDARITZA:** Antolaketa, zuzendaritza, lanaren kontrola
 - > **BULEGOA:** merkataritza-lanak, kontabilitatea, administrazioa eta bulegoko beste zeregin batzuk
 - > **PRODUKZIOA:** produkzioa, instalazioa, konponketa, mantentze-lanak, enbalajea
 - > **OSASUNA ETA IRAKASKUNTZA:** zeregin tekniko edo zientifikoak, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta irakaskuntza
 - > **LEHEN SEKTOREA:** baliabide naturalak ustiatzea eta erauztea (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza, harrobiak, meatzaritza...).

> **OSTALARITZA:** ostalaritza, norbait zaintzea, garraioa, garbiketa, segurtasuna

> *Beste batzuk*

Aurkezpenean adierazi den bezala, bi aldagai gehitu dira, lanaz kanpoko inguruabar batzuek (lan-jardueran eragina duten faktoreek, kasurako) kontsumo-ohituretan eraginik ote duten argitzeko.

- **Norbait ardurapean.** Kontuan hartzen da ardurapeko pertsona familia-etxebizitzan bizi den 12 urtetik beherakoa eta/edo mendekoa den eta arreta erregularra behar duen. Bi kategoria ezarri dira.

> **Bai**

> **Ez**

- **Ardurapean duenari arretan ematen pasatzen duen denbora.** Lanegunetan batez beste etxeko lanetan eta adingabeak eta/edo bestelakoak zaintzen ematen duen denbora hartzen da kontuan. Bi kategoria ezarri dira analisian.

> **Bi ordu baino gutxiago**

> **Bi ordu edo gehiago**

Substantzia adiktiboen kontsumoaren prebentziorako jardueri buruzko informazioa bildu nahirik, galdetu da ea azken 12 hiletan enpresak informaziorik eman edo eskaini duen alkoholaren, tabakoaren edo beste adikzio batzuen arriskuez edo haien prebentzioari buruz.

Lan-arloan eragin handiena duten adikzioak aztertu dira; hona:

ALKOHOLA

- **Alkohola egunero:** azken 30 egunetan alkohola egunero kontsumitzea. Aldagai honetan ez da kontuan hartzen zenbat kontsumitzen den, kontsumitzen den edo ez baino. Kategoria hau, egunero kontsumitzea, lan-arloko arazoekin lotuta egon daitekeelako hautatu da.

KALAMUA

- **Kalamua egunero:** azken 30 egunetan alkohola egunero kontsumitzea. Kontuan eduki behar da kalamuak batez beste iraupen luzea duela, hortaz, laneko jardunaldian ere izango duela eraginik.



- **Eguerdi aurreko kontsumoa azken 12 hiletan.** Eguerdi aurretik kontsumitzea mendekotasunaren seinalea izan daiteke.

TABAKOA

- **Tabakoa:** azken 30 egunetan egunero kontsumitzea
- **10 zigarreta baino gehiago egunean:** azken 30 egunetan

PSIKOFARMAKOAK

- **Psikofarmakoak:** azken 30 egunetan. Honako hauek sartzen dira: lasaigarriak, baregarriak eta somniferoak.

JOKOA

- **Jokoa:** azken 12 hiletan, astean 2 - 5 egun, dirua jokatu du, linean edo bertaratuta, dirua irabazteko asmoarekin.

1.2.2 Eremuko lana

Eremua aztertzeke lana Ikertalde enpresak egin zuen 2023ko martxoaren 6tik ekainaren 20ra bitartean.

1.3 Txostenaren egitura

Txosten honetan Euskadiko adikzioei buruzko 2023ko inkestaren emaitzetatik lan-aldaiei dagozkienak aurkezten dira. Ondo bereizitako bi ataletan egituratu da.

Lehen atalean lanarekin lotutako aldagaien arabera lortutako emaitza nagusien laburpena egiten da.

Bigarren atalean emaitzak kontsumo orokorraren zein adikzio-substantzia espezifikoaren aldagaien arabera aurkezten dira.

2.

Emaitzak aldagaien arabera

Atal honetan inkestan aztertutako lan-aldagaien datuen emaitza garrantzitsuenak azaltzen dira, adina, sexua eta beste parametro orokor batzuk aplikatuz.

Gainera, zuzenean lanekoak ez izan arren lan-jardunean eragina duten alderdi batzuk hartu dira kontuan, hala nola zainketak eta horietan ematen den denbora, adikzioetan duten eraginaren berri jakiteko.

Emaitzak aurkeztean, $p < 0,05$ batez adierazten dira estatistikoki esanguratsuak diren balioak. Estatistikoki esanguratsuak ez diren emaitzetan ez da p balioa adierazten.

2.1 Adina

Adina **alkoholaren** eguneroko kontsumoarekin lotutako faktorea da: zenbat eta zaharrago, handiagoa kontsumitzaileen proportzioa. Gizonen kasuan, diferentziak daude aztertutako hiru adin-tarteetan ($p < 0,05$). Emakumeen artean, diferentziak gazteenen eta zaharrenen artean daude ($p < 0,05$).

Kalamua kontsumitzen duten pertsonen portzentajea handia da gazteenen artean; diferentziak daude 16-34 taldekoen eta 50-65 taldekoen artean ($p < 0,05$).

Kalamuaren eguneroko kontsumoa alkoholaren eguneroko kontsumoarekin alderatuz gero 16-34 urtekoen taldean, kalamua (% 3,56) gehiago kontsumitzen da alkohola baino (% 2,78), eta batez ere gizonak dira (% 5,89) egunero kalamua eta alkohola kontsumitzen dutenak (% 3,78) adin-tarte horretan.

Bai biztanleria orokorrean, bai gizonetan, **kalamua eguerdia baino lehen** kontsumitzen dutenen portzentajea handiagoa da 16-34 adin-tartearen aztertutako beste bi adin-tarteetan baino ($p < 0,05$).

Tabakoa da adinarekin loturarik ez duen substantzia bakarra.

Biztanleria orokorrean eta emakumeetan, **psikofarmakoen** kontsumoa txikiagoa da 16-34 adin-tartean beste bi adin-tarteetan baino ($p < 0,05$).

Psikofarmakoen kontsumoan emakumeak nagusi dira, 16-34 adin-tartean izan ezik, horretan gizonak emakumeak baino gehiago baitira.

Adinak eragina dauka dirua **jokatzearekin**: zenbat zaharrago, jokalaria gehiago. Biztanleria orokorrean eta emakumeetan, diferentziak daude 16-34 eta 50-65 adin-tarteen artean ($p < 0,05$).

2.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa

- **Alkohola, kalamua, tabakoa eta jokoa** kontsumitzen duten pertsonen proportzioa handiagoa da txandaka lan egiten dutenen artean. Datuak sexuen arabera bereizita, ereduak bere horretan segitzen du.
- **Psikofarmakoen** kasuan, emakumeek gehiago kontsumitzen dituzte txandaka lan egiten dutenean. Aldiz, gizonen kasuan egoera bestelakoa da: txandaka lan egiten duten kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa da.

2.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa

Alkoholari dagokionez, gaueko txandan lan egiten duten emakume kontsumitzaileen portzentajea eguneko txandakoena baino handiagoa da; izan ere, gaueko txandan ari diren gizonena baino handiagoa da. Hala ere, biztanleria orokorrean eta gizonetan, eguneko txandan ari diren kontsumitzaileen portzentajea gauekoan ari direnena baino handiagoa da.

Kalamuaren eguneroko kontsumoari dagokionez, bai biztanleria orokorrean, bai gizonen artean kalamua egunero kontsumitzen dutenen artean portzentaje handiena gaueko txandan lan egiten dutenena da. Gaueko txandan ari diren emakumeen artean ez egon inor kontsumitzen duenik.

Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzeari dagokionez, gaueko txandan lan egiten duten kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da ($p < 0,05$). Gainera, estatistikoki esanguratsua ez bada ere, eredu hori gizonen artean zein emakumeen artean gertatzen da.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, gaueko txandan ari diren kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da egunez ari direnena baino, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. **Egunean 10 zigarreta baino gehiago** kontsumitzea irizpide harturik, diferentziak oso txikiak dira biztanleria orokorrean, baina egunean 10 zigarreta baino gehiago kontsumitzen dituzten gizonen artean gaueko txandan ari direnen portzentajea handiagoa da, eta emakumeen artean eguneko txandan ari direnena.

Deigarria da **psikofarmakoen** kontsumoaren datuak: uste bada ere gaueko txandan lan egiten dutenak direla horrelako substantziak gehien kontsumitzen dituztenak, inkestako emaitzek adierazten dute gaueko txandan ari diren gizon eta emakume kontsumitzaileen portzentajea egunez ari direnena baino txikiagoa dela.

Jokoari dagokionez, diferentziak oso txikiak badira ere, gauez lan egiten duten jokalarien portzentajea txikiagoa da egunez lan egiten dutenena baino. Diferentzia horiek zertxobait nabarmenagoak dira datuak sexuaren arabera bereiziz gero; are gehiago: gauez lan egiten duten emakumeen artean inor ez da jokoan ibiltzen.

2.4 Ikasketak

Biztanleria orokorrean eta ikasketa-maila baxua duten gizonen artean **tabakoaren** kontsumoa prestakuntza-maila handia duten pertsonena baino handiagoa da ($p < 0,05$). Emakumeen artean ez da hori gertatzen.

Gauza bera gertatzen da **alkoholaren, kalamuaren (egunero eta eguerdia baino lehen), psikofarmakoen eta jokoaren** kontsumoarekin: zenbat eta baxuagoa ikasketa-maila, handiagoa kontsumoa, bai gizonen artean, bai emakumeen artean (nabarmenagoa gizonen artean).

Hauxe ondorioztatu dezakegu: aztertutako adikzio guztietan, kontsumorik handiena prestakuntza-maila baxueneko taldean gertatzen da.

2.5 Lan-egoera

Alkohola kontsumitzen dutenen portzentaje handiena langabeen taldean dago. Gizonen kasuan, 10 puntu baino gehiagoko aldea dago langabeen eta landunen artean. Hala ere, emakumeen artean aldea oso txikiak da, puntu bat baino ez.

Kalamuaren eguneroko kontsumoa aztertuz gero, lanik ez duten taldean kontsumitzaileen proportzioa handiagoa da *landunen* taldean baino ($p < 0,05$).

Gizonen kasuan, langabeen portzentajea nahiko handiagoa da *landunena eta lan bila ez dabiltzanena* baino ($p < 0,05$). Hala ere, emakumeen artean ez dago diferentziarik taldeen artean.

Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzeari dagokionez, bai biztanleria orokorrean, bai gizonetan, langabe kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da beste bi taldeetako kontsumitzaileena baino ($p < 0,05$). Bestalde, emakume kontsumitzaileak urriagoak dira langabeen taldean beste bi taldeetan baino ($p < 0,05$).

Biztanleria orokorrean eta gizonetan, **tabakoa** kontsumitzen dutenen portzentajea handiagoa da *langabeen* artean aztertutako beste bi taldeetan baino ($p < 0,05$). Diferentzia hori ez da ageri emakumeen taldean.

Biztanleria orokorrean, **psikofarmakoen** kontsumoa txikiagoa da landunen artean beste bi taldeetan baino ($p < 0,05$).

Jokoan dabiltzanen portzentaje handiena *langabeena* da, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

Hauxe da ondorioa: aztertutako adikzio guztietan, gehien kontsumitzen dutenak langabeak dira. Pentsa liteke landuna izatea adikzioetatik babesten duen faktorea dela, batez ere gizonen artean.

2.6 Lan-mota

Alkoholaren kontsumoa lan-taldearen arabera aztertuta, biztanleria orokorrean diferentzia nabarmena dago *Produkzioa* taldearen eta Osasuna eta irakaskuntza taldearen artean ($p < 0,05$). Azken talde horretan dago kontsumitzaile-proportzio txikiena.

Lan-mota eta **kalamuaren eguneroko kontsumoa** aztertuz gero, biztanleria orokorrean alde nabarmena dago *Produkzioa* taldearen (% 5,94) eta *Bulegoak* taldearen artean (% 2,44). **Eguerdi aurreko kontsumoa** aztertuta, ez dago diferentzia nabarmenik lan-moten artean.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, erretzaile-proportzio handiena *Produkzioa* taldeko langileen artean dago: portzentajeak Bulegoa eta *Osasuna eta irakaskuntza* taldeetakoak baino handiagoak dira ($p < 0,05$). Bulegoa taldeko emakume kontsumitzaileen portzentajea gizonena baino handiagoa da. Hori talde honetan baino ez da gertatzen.

Psikofarmakoak kontsumitzen dituzten pertsonen portzentaje handiena *Zuzendaritza* taldekoa da. Gainera, gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa da. Biztanleria orokorrean, bigarren taldea *Ostalaritza eta pertsonen zainketa* da, eta kontsumitzen duten emakumeak gizonak baino gehiago dira: 4 puntu gehiago.

Jokoa kontsumitzen duten pertsonen portzentaje handiena *Produkzioa* taldekoa da (gizonak nagusi direla). Hurrengo taldea *Ostalaritza* eta pertsonen zainketa da; talde honetan emakume kontsumitzaileen portzentajea gizonena baino handiagoa da (% 8,51).

Datu horiek erakusten dute alkoholaren, kalamuaren, tabakoaren eta jokoaren kontsumo handiena *Produkzioa* taldean gertatzen dela, hau da, jardura maskulinizatu batean. Ostera, *Produkzioa* taldean lan egiten dutenen artean psikofarmakoak kontsumitzen dituzten emakumeak gizonak baino gehiago dira (% 8,97).-

2.7 Norbait ardurapean

Norbait ardurapean edukitzea kontuan hartuta, egunero **alkohola** kontsumitzen dutenen artean gehiago dira ardurapean inor ez dutenak. Gizonen artean portzentajeak antzekoak dira bi taldeetan, baina emakumeen kasuan gehiago dira ardurapean inor ez dutenen artean. Horren azalpena hauxe izan daiteke: ardurapean inor ez edukitzeak aukera gehiago ematen du sozializatzeko, eta gure artean hori oso lotuta dago alkoholaren kontsumoarekin.

Kalamua kontsumitzen dutenen portzentajea txikiagoa da inor ardurapean dutenen artean, bai eguneroko kontsumitzen dutenena, bai eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenena. Norbait ardurapean duten emakumeen artean ez da inor egon eguerdia baino lehen kontsumitzen duenik. Diferentzia esanguratsua da ($p < 0,05$).

Inor ardurapean edukitzea edo ez edukitzea ez dago lotuta **tabakoa** egunero kontsumitzen duten pertsonen portzentajearekin. Izan ere, ia ez dago diferentziarik ez biztanleria orokorrean ez sexuen arabera bereizitako datuetan.

Inor ardurapean ez duten biztanleek **psikofarmako** gehiago kontsumitzen dute ardurapean inor dutenek baino. Eredu hori bi sexuetan mantentzen da.

Aldiz, **jokoari dagokionez** kontsumoa handiagoa da norbait ardurapean duten kontsumitzaileen portzentajea, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

Inor ardurapean edukitzea aintzat hartuta, ez da agertzen kontsumo-eredu homogeneous. Ardurapean inor dutenen artean gehiago dira joko-kontsumitzaileak, baina gutxiago alkohola, kalamua eta psikofarmakoak kontsumitzen dituztenak. Beste alde batetik, badirudi faktore horrek ez duela eraginik tabakoaren kontsumoarekin.

2.8 Ardurapekoari arreta ematen pasatzen den denbora

- Zaintzan ematen den denbora aztertuta, zenbat eta denbora gehiago eman horretan, handiagoa da **alkohola** kontsumitzen duten pertsonen portzentajea. Diferentzian apur bat handiagoa da gizonen artean.
- **Kalamuaren** ohiko kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa da etxeko lanetan edo pertsonen zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituztenen artean zeregin horietan denbora gutxiago ematen dutenen artean baino. Gauza bera gertatzen da **kalamua eguerdia baino lehen** kontsumitzen dutenen artean: kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa da zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituztenen artean horretan denbora gutxiago ematen dutenen artean baino.

Tabakoaren kontsumoan alderantziz gertatzen da: erretzaileen portzentajea apur bat altuagoa da zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituztenen artean, bai emakumeen artean, bai gizonen artean.

- Biztanleria orokorrean, **psikofarmakoen** kontsumoa ardurapeko pertsonen eskaintzen zaien arreta-denborarekin lotu liteke: zenbat eta dedikazio handiagoa, handiagoa kontsumitzaileen portzentajea.
- Bai gizonetan, bai emakumeetan, ardurapean norbait duten **joko-kontsumitzaileen** portzentajea handiagoa da inor ardurapean ez dutenena baino.

Ardurapekoari arreta ematean pasatzen den denborari dagokionez, zenbat eta zaintzan denbora gehiago eman, orduan eta handiagoa tabakoaren, psikofarmakoen eta jokoaren kontsumoa. Kalamuaren kasuan besterik ez da gertatu norbait zaintzen 2 ordu baino gutxiago pasatzen dutenen aldean kontsumitzaile-proportzioa baxuagoa izatea.

2.9 Adikzioei buruzko prestakuntza enpresan

Inkestak erakusten duenez, enpresa gutxiak ematen dute adikzioen prebentzioaren inguruko informazioa. Inkesta egin duten 1.884 pertsonetatik 140k baino ez dute jaso gai horri buruzko informazioa. Gizonezkoen % 10,3 inguruk eta emakumeen % 6,5 inguruk.

3.

Emaitzak substantzien arabera

Jarraian aurkezten diren emaitzetan, aldeak estatistikoki esanguratsuak direnean, adierazpen hau sartuko da ($p < 0,05$).

3.1 Alkoholaren kontsumoa egunean


3.1.1 Adina

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
16-34	3,85	1,63	2,78
35-49	11,32	5,18	8,21
50-65	27,39	9,01	17,90

1. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: batez besteko portzentajeak

Oro har, adinean aurrera egin ahala, gehiago dira egunero edari alkoholodunak kontsumitzen dituzten pertsonak. Joera hori berdin gertatzen da gizonen zein emakumeen artean.

- Gizonen kasuan, kontuan hartutako hiru adin-taldeen artean diferentzia esanguratsuak daude: 16-34 urte bitarteko pertsonen % 3,85 eta 50-65 urte bitartekoen % 27,39 ($p < 0,05$).
- Emakumeen kasuan, diferentzia esanguratsu bakarra 16-34 taldearen (% 1,65) eta 50-65 taldearen (% 9,01) artekoa da ($p < 0,05$). Hala ere, tarteko taldearen portzentajea % 5,18 da, eta horrek ere erakusten du kontsumoak gora egiten duela zahartu ahala.



1. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.1.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Erregularra	14,53	5,13	9,70
Txandakakoa	15,29	7,59	12,30

2. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentzia esanguratsurik ez egon arren (ez orokorrean, ez sexuaren arabera bereizita), inkesta egin aurreko 30 egunetan alkohola egunero kontsumitu zuten pertsonen batez besteko portzentajea handiagoa izan zen txandaka lan egiten dutenen artean (% 12,30) lanaldi erregularra dutenen artean baino (% 9,70).

- Gizonen kasuan, bi taldeen arteko aldea oso txikia da: lanaldi erregularra dutenen % 14,53 eta txandaka ari direnen % 15,29.
- Emakumeen artean aldea handiagoa da: lanaldi erregularra dutenen % 5,13 eta txandaka ari direnen % 7,59.



2. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.1.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Egunekoa	15,87	5,21	10,36
Gauekoa	7,85	10,23	8,49

3. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, gaueko lanaldiaren arabera: batez besteko portzentajeak

Egunez lan egiten dutenen eta gauez lan egiten dutenen artean diferentzia esanguratsurik ez badago ere, inkesta egin aurreko 30 egunetan alkohola egunero kontsumitu dutenen batez besteko portzentajea handiagoa da beti egunez lan egin zutenen artean (% 10,36) besteen artean baino (% 8,49).

Hala ere, sexuen arabera, ereduak alderantzizkoak dira. Emakumeen kasuan, eguneroko kontsumitzaileen artean gehiago dira 30 egunetan noizbait gauez lan egin zutenen artean baino: % 10,23 versus % 5,21. Berriz, gizonen artean beti egunez lan egin zutenen portzentajea besteena baino handiagoa da (% 15,87 versus % 7,85).



3. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.1.4 Lan-egoera

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Landunak	14,06	5,40	9,79
Lan-bila ez dabiltzanak	12,68	5,59	8,84
Langabeak	22,65	6,25	14,80

4. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak

Biztanleria orokorrean diferentzia esanguratsurik ez dagoen arren, inkesta egin aurreko 30 egunetan alkohola egunero kontsumitu zuten pertsonen batez besteko portzentajea handiagoa izan zen langabezian zeuden artean (% 14,80) landunen artean (% 9,79) eta lan bila ez dabiltzanen artean (% 8,84) baino.

Datuak sexuaren arabera bereiziz gero, emakumeen artean ia ez dago diferentziarik eta gizonen artean, berriz, eredu orokorra mantentzen da: *langabeen taldearen portzentajea* (% 22,65) handiagoa da *landunen taldearena* (% 14,06) eta *lan bila ez dabiltzanen taldearena* (% 12,68) baino.



4. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.1.5 Lan-mota

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
A. Zuzendaritza	19,73	3,81	15,34
B. Bulegoa	15,20	5,58	9,42
C. Produktzioa	15,19	8,86	14,52
D. Osasuna eta irakaskuntza	11,22	3,24	5,35
E. Lehen sektorea	20,55	0,00	19,54
F. Ostalaritza eta besteak zaintzea	13,34	7,12	9,80
G. Beste batzuk	0,00	9,63	5,04


5. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Oro har, alkohola egunero kontsumitzen dutenen portzentaje handiena *Lehen sektorea* taldekoena da (% 19,54); nolanahi ere, inkesta 11 pertsonak baino egin ez dutenez, emaitzaren aldakortasuna oso handia da. Halaber, portzentaje handiak daude talde

hauetan ere: *Produkzioa* (% 14,52) eta *Zuzendaritza* (% 15,34). Aldiz, *Produkzioa* (% 15,20) eta *Osasuna eta irakaskuntza* (% 5,35) taldeen arteko diferentzia esanguratsua da.

Datuak sexuaren arabera bereiziz gero, taldeen arteko diferentziak ezerezean gelditzen dira, Beste batzuk taldean izan ezik, hor eguneroko kontsumitzaileen artean gizonak emakumeak baino gehiago baitira. Ondoren eguneroko kontsumitzaileen batez besteko proportzio handieneko taldeak azalduko dira.

- Gizonen artean: *Zuzendaritza* (% 19,73), *Bulegoa* (% 15,20) eta *Produkzioa* (% 15,19).
- Emakumeen artean: *Beste batzuk* (% 9,63), *Produkzioa* (% 8,86) eta *Ostalaritza eta pertsonen zainketa* (% 7,12).



5. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.1.6 Ikasketak

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Bigarren maila arteko ikasketak	15,58	5,60	11,01
Unibertsitate-ikasketak	10,73	5,32	7,53

6. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-mailaren arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentzia esanguratsurik ez badago ere, *Bigarren mailara arteko ikasketak* taldekoen artean alkohola egunero kontsumitzen direnak (% 11,01) gehiago dira *Unibertsitate-ikasketak* taldekoen artean baino (% 7,53).

Datuak sexuen arabera bereizita, gizonetan diferentzia nabarmena dago bigarren mailara arteko ikasketak egin dituztenen (% 15,58) eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenen artean (% 10,73). Aldiz, emakumeen artean, 0,3 puntuko diferentzia besterik ez dago bi talde horien artean.



6. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.1.7 Beste norbait ardurapean

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
EZ	14,18	6,54	10,33
BAI	14,41	2,83	8,62

7. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak

Inkesta egin aurreko 30 egunetan alkohola egunero kontsumitu dutenen portzentajea apur bat handiagoa izan da inor ardurapean ez dutenen artean (% 10,33) norbait ardurapean dutenen artean baino (% 8,62). Nolanahi ere, diferentzia ez da esanguratsua.

Deigarria da gizonen eta emakumeen datuen arteko diferentzia. Gizonen artean, inor zaintzen ez dutenen portzentajea eta norbait zaintzen dutenena ia bera da. Emakumeen artean, aldiz, ia 4 puntuko aldea dago inor zaintzen ez dutenen (% 2,83) eta norbait zaintzen dutenen artean (% 6,54).




7. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.1.8 Ardurapekoari arreta ematen pasatzen den denbora

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
2 ordu baino gutxiago	13,57	5,38	9,90
2 ordu edo gehiago	16,21	5,64	9,71

8. taula. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak

Alkohola egunero kontsumitu dutenen artean, ez dago diferentzia esanguratsurik etxeko lanetan eta norbait zaintzen bi ordu baino gehiago ematen dituztenen (% 9,71) eta hori baino denbora gutxiago ematen dutenen artean (% 9,90). Datuak sexuaren arabera bereizita, ez dago diferentzia handirik bi taldeen artean. Nolanahi ere, diferentzia txikiagoa da emakumeen artean (% 5,64 eta % 5,38) gizonen artean baino (% 16,21 eta % 13,57). Dena dela, arreta-denbora gorabehera, eguneroko kontsumoa handiagoa da gizonetan.



8. grafikoa. Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.1.9. Alkoholen kontsumoa egunero: ondorioak

- Alkohola egunero kontsumitzen duten gizonak emakumeak baino gehiago dira.
- Adina faktore erabakigarria da alkoholen eguneroko kontsumoan: adinean aurrera joan ahala, kontsumitzaileen proportzioak gora egiten du. Gizonen kasuan, diferentziak esanguratsuak daude aztertutako hiru adin-tarteetan ($p < 0,05$). Emakumeen artean, diferentzia esanguratsuak gazteenen eta zaharrenen artean daude.
- Alkohola egunero kontsumitzen dutenen artean, txandaka lan egiten duten kontsumitzaileen portzentajea lanaldi erregularrarekin ari direnena baino handiagoa da. Dena dela, diferentzia ez da esanguratsua estatistikoki.
- Datuak estatistikoki esanguratsuak ez izan arren, gaueko txandan lan egiten duten emakume kontsumitzaileen portzentajea eguneko txandan ari direnena baino handiagoa da, eta are gaueko txandan lan egiten duten gizon kontsumitzaileena baino ere. Gizonen artean eredia alderantzizkoa da: kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da eguneko txandan lan egiten dutenen artean.
- Lan-egoera kontuan hartuta, ez dago estatistikoki esanguratsua den diferentziarik; hala ere, lanik gabe dauden gizonen artean kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da landunen artean baino: 8 puntuko aldea. Aldiz, emakumeen arteko diferentzia oso txikia da, aldea puntu batetik beherakoa baita.
- Biztanleria orokorra aztertuta, diferentzia esanguratsua dago lan-moten artean, hain zuzen ere *Produktzioa taldearen eta Osasuna eta irakaskuntza taldearen artean*. Azken talde horretan dago kontsumitzaile-portzentaje txikiena.
- Zenbat eta ikasketa-maila baxuagoa, kontsumitzaile-portzentaje handiagoa. Dena den, diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Norbait ardurapean edukitzea kontuan hartuta, datuek ez dute erakusten diferentzia esanguratsurik; hala ere, kontsumitzaile-portzentajea handiagoa da inor ardurapean ez dutenen artean. Gizonen artean portzentajeak antzekoak dira, norbait ardurapean eduki zein ez eduki; emakumeen artean, baina, ardurapean inor ez duten kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da.

- Zaintzan ematen den denbora aintzat hartuz gero, gizonen artean soilik dira gehiago zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituzten kontsumitzaileak. Emakumeen proportzioa oso antzekoa da.

3.2. Kalamuaren kontsumoa

Bi kontsumo-kasu aztertu dira:

- **Kalamua egunero:** azken 30 egunetan egunero kontsumitu izana
- **Eguerdi aurretik kontsumitzea**

3.2.1 Adina

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
16-34	5,89	1,06	3,56	7,13	2,94	5,11
35-49	4,09	0,50	2,27	1,87	1,15	1,51
50-65	0,93	1,37	1,16	1,36	0,49	0,91


9. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenen batez besteko portzentajeak, sexuaren eta adinaren arabera

Kalamua egunero kontsumitzen dutenen portzentajea murriztu egiten da adinean aurrera egin ahala. Gizonen kasuan, diferentzia esanguratsuak daude 16-34 adin-taldearen (% 5,89) eta 50-65 adin-taldearen (% 0,93) artean. Tarteko adin-taldearen portzentajea % 4,09 da ($p < 0,05$), eta horrek erakusten du kontsumoak behera egiten duela zahartu ahala.

Biztanleria orokorrean, deigarria da 16 - 34 taldean kalamua kontsumitzen dutenen portzentajea (% 3,56) alkohola kontsumitzen dutenena (% 2,78) baino handiagoa izatea, nahiz eta alkohola izan gure inguruko drogarik normalizatuena. Hala ere, 35 urtetik gora, alkohola kontsumitzen dutenen portzentajea asko igotzen da eta kalamua kontsumitzen dutenen portzentajea nabarmen jaisten da. Esan bezala, 16 - 34 adin-


tartean kalamua egunero kontsumitzen dutenak alkohola egunero kontsumitzen dutenak baino gehiago dira, eta alderik handiena gizonen artean gertatzen da: kalamua % 5,89k kontsumitzen dute eta alkohola % 3,85ek. Aldiz, emakumeen artean bestela da: kalamua % 1,06k kontsumitzen dute egunero eta alkohola % 1,63k.

Halaber, estatistikoki esanguratsua ez bada ere, kontuan hartzeko modukoa da kalamua egunero kontsumitzen duten 50 - 65 adin-tarteko emakumeen portzentajea, biztanleria orokorrarena eta gizonena baino handiagoa baita (halakorik ez da gertatzen ez alkoholaren ez tabakoaren kontsumoan).



9. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, adinaren eta sexuaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzeko ohitura mendekotasunaren zuzeneko adierazlea izan daiteke. Adinak aurrera egin ahala, kontsumo hori nabarmen murrizten da. Gizonetan eta biztanleria orokorrean, 16-34 adin-tarteko kontsumitzaileen proportzioa askoz handiagoa da beste bi adin-tarteetakoak baino. Emakumeetan, eguneroko kontsumoan ez bezala, eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak gehitu egiten dira adinean aurrera egin ahala.




10. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.2. Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Erregularra	3,40	0,37	1,84	2,56	1,14	1,83
Txandakakoa	6,36	0,00	3,89	6,33	0,91	4,23


10. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Lanaldi-motaren arabera ez dago diferentzia esanguratsurik ordutegi erregularra dutenen eta txandaka ari direnen artean. Hala ere, bai biztanleria orokorrean, bai gizonetan, kontsumitzaile gehiago daude txandaka ari direnen artean ordutegi erregularra dutenen artean baino.



11. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Kalamuaren eguerdiaurreko kontsumoari dagokionez, txandakari diren kontsumitzaileen portzentajea (% 4,23) handiagoa da hala ez dabiltenena baino (% 1,83). Eguneroko kontsumoan ez bezala, badaude eguerdia baino lehen kontsumitzen duten emakume batzuk (portzentaje oso txikia).




12. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Egunekoa	3,49	0,34	1,86	2,68	1,03	1,83
Gauekoa	7,25	0,00	5,32	7,44	2,37	6,09


11. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentzia esanguratsurik ez egon arren, biztanleria orokorrean, kalamua egunero kontsumitzen dutenen artean gehiago dira gauez lan egiten dutenak (% 5,32) gauez lan egiten dutenak baino (% 1,83). Datuak sexuaren arabera bereizita, gizonen artean joera bera dago; emakumeen artean, aldiz, ez dago kontsumitzen duen inor.



13. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen duten biztanleak orokorrean hartuta, diferentzia esanguratsua dago gaueko txandan lan egiten duten pertsonen (% 6,09) egunez lan egiten duten artean (% 1,83) ($p < 0,05$). Sexuaren arabera bereiziz gero, datuak ez dira esanguratsuak, baina ereduak bere horretan segitzen du: kontsumitzaile gehiago daude gauez lan egiten duten pertsonen artean.



14. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.2.4 Enplegua

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Landunak	3,34	0,34	1,86	2,33	1,18	1,76
Lan-bila ez dabiltzanak	2,02	2,82	2,45	3,14	2,48	2,78
Langabeak	13,36	0,63	7,26	17,34	0,00	9,04

12. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak

Oro har, kalamua sarritan kontsumitzen duten pertsonen portzentajerik handiena Langabeak taldekoa da; gainera, horren eta Landunak taldekoen portzentajearen arteko diferentzia esanguratsua da ($p<0,05$). Gizonen kasuan, langabeen portzentajea (% 13,36)


nahiko handiagoa da landunena (% 3,34) eta lan bila ez dabiltzanena (% 2,02) baino ($p < 0,05$). Emakumeen artean ez dago diferentziarik taldeen artean.



15. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Eguerdi aurreko kontsumoa dela eta, diferentzia esanguratsuak dauden talde hauen artean:

- Bai biztanleria orokorrean, bai gizonetan, langabe kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da beste bi taldeetako kontsumitzaileena baino ($p < 0,05$).
- Emakumeen artean ordena bestelakoa da, baina prebalentziak askoz txikiagoak dira. Lan bila ez dabiltzan emakume kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da beste taldeetakoena baino ($p < 0,05$).



16. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.5 Lan-mota


	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
A. Zuzendaritza	7,18	0,00	5,20
B. Bulegoa	2,44	0,00	0,97
C. Produkzioa	5,94	0,00	5,31
D. Osasuna eta irakaskuntza	2,86	0,26	0,95
E. Lehen sektorea	0,00	0,00	0,00
F. Ostalaritza eta besteak zaintzea	2,23	0,97	1,51
G. Beste batzuk	0,00	0,00	0,00

13. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Biztanleria orokorrean, diferentzia esanguratsuak daude *Produkzioa* taldeko langileen (% 5,31) eta *Bulegoa* taldekoen artean (% 0,97) ($p < 0,05$).

Laginaren tamainak berekin dakarren aldakortasuna kontuan hartuta, datu hauek azpimarratu behar dira:

- *Produkzioa* taldekoa da portzentajerik altuena (% 5,31); ondoren *Zuzendaritza* (% 5,20) eta *Ostalaritza* eta pertsonen zainketa (% 1,51) datoz. Gainerako taldeetako portzentajea % 1etik beherakoa da.
- *Sektore* edo *arlo guztietan*, kalamua egunero kontsumitzen duten gizonak emakumeak baino gehiago dira. Emakume kontsumitzaileen portzentaje guztiak % 1etik beherakoak dira.




17. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
A. Zuzendaritza	1,60	0,00	1,16
B. Bulegoa	1,15	0,87	0,98
C. Produkzioa	6,14	1,55	5,65
D. Osasuna eta irakaskuntza	2,89	0,89	1,42
E. Lehen sektorea	10,49	0,00	9,97
F. Ostalaritza eta besteak zaintzea	1,19	1,83	1,56
G. Beste batzuk	5,11	0,00	2,43

14. taula. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentzia esanguratsua dago kalamua eguerdia baino lehen kontsumitu duten *Produkzioa* taldekoen eta *Bulegoa* taldekoen artean ($p < 0,05$).

Talde gehienetan gizonek gehiago kontsumitzen dute, *Ostalaritza eta pertsonen zainketa* taldean izan ezik. Kontsumitzaile-portzentajerik altuena Lehen sektorea taldekoa da; nolana ere, aurrean aipatu den bezala, talde horretako 11 pertsonak baino ez dute egin inkesta.




18. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.6 Ikasketak

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Bigarren maila arteko ikasketak	4,03	1,31	2,78	4,06	1,86	3,05
Unibertsitate-ikasketak	2,53	0,41	1,28	1,39	0,78	1,03


15. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak



19. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Kalamua egunero kontsumitzen dutenen portzentajea handiagoa da ikasketa-maila baxuko pertsonen artean (% 2,78) unibertsitate-ikasketak egin dituztenen artean baino (% 1,3). Gizonen artean diferentzia aurreko bera da; emakumeen artean, berriz, aldea txikiagoa da.

Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenen artean 2 puntuko aldea dago unibertsitate-ikasketak egiten dituztenen (% 1,03) eta egin ez dituztenen artean (% 3,05). Diferentzia esanguratsua da ($p < 0,05$). Diferentzia bi sexuetan gertatzen bada ere, gizonen artean handiagoa da.




20. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.7 Beste norbait ardurapean dutenak

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
EZ	3,70	1,33	2,50	3,72	2,00	2,85
BAI	3,41	0,00	1,71	2,33	0,00	1,17


16. taula. Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak

Kalamua egunero kontsumitzen dutenen portzentajea txikiagoa da norbait ardurapean dutenen artean (% 1,71) ez dutenen artean baino (% 2,50). Gizonen artean diferentzia txikiagoa da emakumeen artean baino.



21. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Eguerdi aurreko kontsumoan joera bera dago. Emakumeak kontuan hartuta, kontuan edukitzeko modukoa da diferentzia esanguratsua dagoela norbait ardurapean dutenen eta ez dutenen artean, ez baitago norbait ardurapean daukan kontsumitzailearik ($p < 0,05$).




22. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.8 Ardurapeko pertsonaren arretan ematen duen denbora

	EGUNERO			EGUERDIA BAINO LEHEN		
	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
2 ordu baino gutxiago	3,61	1,00	2,44	3,69	1,66	2,78
2 ordu edo gehiago	3,64	0,88	1,95	2,27	1,10	1,55


17. taula. Azken hilean kalamua egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Diferentzia esanguratsurik ez egon arren, kalamuaren ohiko kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa da etxeko lanetan edo pertsonen zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituztenen artean (% 1,95) zeregin horietan denbora gutxiago ematen dutenen artean baino. Datuak sexuaren arabera bereizita, bi taldeen artean ia ez dago diferentziarik.



23. grafikoa. Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenen artean ez dago diferentzia esanguratsurik; hala ere, kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa da zaintzan bi ordu edo gehiago ematen dituztenetan, horretan denbora gutxiago ematen dutenen aldean. Hala da, bai biztanleria orokorrean, bai datuak sexuaren arabera bereizita.



24. grafikoa. Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.2.9 Kalamua: emaitzak

- Kalamua kontsumitzen duten pertsonen portzentajea handiagoa da gazteen artean; diferentzia esanguratsua dago 16-34 taldekoen eta 50-65 taldekoen artean ($p < 0,05$).
- 16 - 34 adin-tartekoaren artean gehiago dira kalamua egunero kontsumitzen dutenak (% 3,56) alkohola egunero kontsumitzen dutenak baino (% 2,78). Diferentzia handiagoa da gizonen artean: % 5,89k kontsumitzen dute kalamua egunero eta % 3,58k kontsumitzen dute alkohola egunero.
- Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenen artean diferentzia esanguratsuak daude, bai biztanleria orokorrean, bai gizonen artean, 16 - 34 taldearen eta beste bi taldeen artean ($p < 0,05$).
- Txandaka lanean ari diren pertsonak kontuan hartuta, kalamuan egunero zein eguerdian baino lehen kontsumitzen duten gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa da.
- Langabeen eta landunen artean kontsumo-diferentzia esanguratsuak daude

($p < 0,05$). Gizonetan, diferentzia esanguratsua dago langabeen eta beste taldeen artean (Landunak eta Lan bila ez dabiltzanak) ($p < 0,05$).

- Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak kontuan hartuta, diferentzia esanguratsua dago lanik ez duten gizonen portzentajearen eta beste bi taldeetako gizonen portzentajearen artean ($p < 0,05$). Gauza bera gertatzen da biztanleria orokorrean.
- Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen duten emakumeen artean egoera alderantzizkoa da. Lanik ez duten emakume kontsumitzaileen portzentajearen eta beste bi taldeetako artean dagoen diferentzia gizonen artekoa baino txikiagoa da.
- Lan-mota irizpide hartuta, biztanleria orokorrean, eguneroko kontsumoan diferentzia esanguratsua dago Produktzioa taldekoen (% 5,94) eta Bulegoa taldekoen artean (% 2,44) ($p < 0,05$).
- Eguerdi aurreko kontsumoan, ez dago diferentzia nabarmenik lan-moten artean.
- Zenbat eta baxuagoa ikasketa-maila, handiagoa kontsumitzaileen portzentajea; eguerdi aurreko kontsumoan, diferentzia esanguratsua da ($p < 0,05$).
- Biztanleria orokorrean, norbait ardurapean duten pertsonen artean egunero kontsumitzen dutenen proportzioa, bai eta eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenena ere, txikiagoa da (ez da esanguratsua estatistikoki).
- Norbait ardurapean duten emakume kontsumitzaileen proportzioa txikiagoa da, eta diferentzia esanguratsua da estatistikoki ($p < 0,05$).
- Zenbat eta denbora gehiago eman inor zaintzen, handiagoak egunero kontsumitzen dutenen portzentajea eta eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenena, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, baina ez da esanguratsua. Gizonen alkohol-kontsumoaren eredia bestelakoa da: zenbat denbora gehiago zaintzan, handiagoa kontsumitzaileen portzentajea.

3.3 Tabakoa egunero

3.3.1 Adina


Tabakoa kontsumitzen duten pertsonen portzentajeak ez dauka lotura esanguratsurik adinarekin.

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
16-34	22,03	17,65	19,91
35-49	25,36	22,19	22,19
50-65	21,43	16,03	18,64

18. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: batez besteko portzentajeak

Bai orokorrean, bai datuak sexuaren arabera bereizita, eredua bera da: gazteenen (16-34) eta zaharrenen (50-65) kontsumo-portzentajeak oso antzekoak dira, eta biak dira tarteko adineko (35-49) pertsonen portzentajea baino txikiagoak. Izan ere, egunero erretzen duten pertsonen portzentaje altuena tarteko taldekoa da.

Adin-tarte guztietan emakumeen portzentajea gizonena baino txikiagoa da.



25. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.3.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Erregularra	23,25	18,64	20,88
Txandakakoa	29,83	27,18	28,80

19. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentzia esanguratsurik ez badago ere, erretzaileen portzentajea handiagoa da txandaka lan egiten duten artean ordutegi erregularrean lan egiten dutenen artean baino.


Datuak sexuaren arabera bereiziz gero, diferentziak apur bat txikitzen dira, baina, hala ere, txandaka ari direnen artean gehiago dira egunero erretzen dutenak.



26. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Egunean 10 zigarreta baino gehiago erretzen dituzten pertsonak aztertuta, txandaka lan egiten dutenen artean portzentajea handiagoa da, batez ere emakumeen artean, baina diferentzia ez da esanguratsua estatistikoki³.

³ Baliteke txandaka lan egiten duten emakumeetatik egunean 10 zigarreta edo gehiago erretzen dituztenak hain gutxi izanda, ezinezkoa izatea diferentziak antzematea (konfiantza-tarte oso handia).




27. grafikoa. Egunean 10 zigarreta baino gehiago erre dituzten pertsonak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.3.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Egunekoa	24,08	19,79	21,86
Gauekoa	28,22	21,09	26,32

20. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: batez besteko portzentajeak


Gauetz lan egiten duten pertsonen artean handiagoa da tabakoa egunero erretzen dutenen portzentajea. Hala da, bai biztanleria orokorrean, bai datuak sexuaren arabera bereizita.



28. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

Biztanleria orokorrean, egunean 10 zigarreta baino gehiago kontsumitzen dituztenen taldean diferentzia txikiak daude gauez lan egiten dutenen (% 15,84) eta egunez baino lan egiten ez dutenen artean (% 15,28).

Sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen kontsumoak desberdinak dira. Gizonetan, gauez lan egiten dutenen artean 10 zigarreta baino gehiago erretzen dituztenen portzentajea 3,5 puntu handiagoa da egunez lan egiten dutenen artekoa baino (gauez ari direnen % 20,04 eta egunez ari direnen % 16,51). Emakumeen taldean bestela da: egunez lan egiten dutenen artean portzentajea % 14,13 da eta gauez lan egiten dutenen artean % 4,26, hau da, 10 puntu gehiago. Nolanahi ere, diferentzia horietako bat ere ez da esanguratsua estatistikoki.



29. grafikoa. Egunean 10 zigarreta baino gehiago erre dituzten pertsonak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.3.4 Lan-egoera

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Landunak	23,30	18,82	21,09
Lan-bila ez dabiltzanak	17,06	15,60	16,27
Langabeak	42,37	33,75	38,25

21. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak

Orokorrean, estatistikoki esanguratsuak diren diferentziak daude *langabeen* (portzentaje altuena) eta beste bi taldeetakoen artean.

Datuak sexuaren arabera bereizita, diferentzia esanguratsuak dauden gizonen multzoan, baina emakumeen multzoan ez.



30. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.3.5 Lan-mota

Lan-motaren arabera, erretzaile-portzentaje handiena *Produkzioa* taldeko pertsonen artean dago (% 30,99). Balio horren eta beste taldeetako balioen artean diferentzia esanguratsuak daude: *Bulegoa* (% 20,48); *Osasuna eta irakaskuntza* (% 16,88).

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Helbidea	19,91	19,88	19,90
Bulegoa	19,25	21,31	20,48
Produkzioa	31,23	29,01	30,99
Osasuna eta irakaskuntza	18,13	16,43	16,88
Lehen sektorea	17,62	0,00	16,75
Ostalaritza eta pertsonen zainketa	26,10	20,61	22,97
Beste batzuk	9,74	9,63	9,68

22. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Datuak sexuaren arabera berezita, emakume erretzaileen portzentajea gizon erretzaileen portzentajea baino handiagoa den sektore bakarra *Bulegoa taldekoa da. Beste guztietan gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa da.*



31. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.3.6 Ikasketak

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Bigarren maila arteko ikasketak	26,81	21,31	24,29
Unibertsitate-ikasketak	13,20	14,92	14,22

23. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Unibertsitate-ikasketak egin dituzten pertsonen artean egunero erretzen dutenen portzentajea unibertsitate-ikasketak egin ez dituzten pertsonen artekoa baino txikiagoa da, eta diferentzia esanguratsua da.

Sexuaren arabera, erlazioak bere horretan segitzen du, baina gizonen arteko diferentziak baino ez dira esanguratsuak.




32. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

3.3.7 Norbait ardurapean

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
EZ	22,79	18,73	20,74
BAI	23,72	18,93	21,33

24. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, norbait bat ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak

Norbait ardurapean edukitzea ez dago lotuta egunero erretzen duten pertsonen proportzioarekin. Izan ere, ia ez dago diferentziarik, ez orokorrean, ez sexuaren arabera.




33. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak

3.3.8 Arreta-denbora

Diferentziak inolaz ere esanguratsuak ez badira ere, bai orokorrean, bai sexuaren arabera, etxeko lanetan eta norbait zaintzen egunean bi ordu edo gehiago ematen dituzten pertsonen artean handiagoa da egunero erretzen dutenen portzentajea.

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
2 ordu baino gutxiago	22,46	17,57	20,27
2 ordu edo gehiago	24,79	20,59	22,21

25. taula. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak



34. grafikoa. Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.3.9 Tabakoa: emaitzak

- Erretzaileen portzentajeen ez dago diferentzia esanguratsurik adinaren arabera.
- Txandaka lan egiten duten pertsonen artean erretzaile gehiago daude, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, baina diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Tabakoaren kontsumoaren intentsitatea dela eta, txandaka lan egiten duten pertsonen artean gehiago dira egunean 10 zigarreta baino gehiago erretzen dituztenak lanaldi erregularra dutenen artean baino. Diferentzia ez da esanguratsua estatistiketarako.
- Gauzez lan egiten dutenen artean kontsumitzaile-portzentaje handiagoak daude, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Egunean 10 zigarreta edo gehiago erretzea dela eta, gaueko txandan lan egiten duten gizonen portzentajea da handiena. Dena dela, diferentzia ez da esanguratsua.
- Langabe kontsumitzaileen portzentajea beste bi taldeetako pertsonena baino handiagoa da, eta diferentzia esanguratsua da.



- Gauzan bera gertatzen da gizonen langabeen eta beste bi taldeetako gizonen artean; aldiz, emakumeen artean ez.
- Erretzaile-portzentajerik altuena *Produkzioa* taldekoa da; horren eta *Bulegoa* eta *Osasuna eta irakaskuntza* taldeetako portzentajeen arteko diferentzia esanguratsua da.
- Bulego-langileen artean, emakume kontsumitzaileen portzentajea gizonena baino handiagoa da. Diferentzia ez da esanguratsua, baina talde honetan baino ez da gertatzen.
- Biztanleria orokorrean, ikasketa-maila baxukoen artean kontsumoa handiagoa da unibertsitate-ikasketak egin dituzten pertsonen artean baino, eta diferentzia esanguratsua da. Gauza bera gertatzen da gizonen artean, baina emakumeen artean, aldiz, ez.
- Unibertsitate-ikasketak egin dituzten pertsonen artean, emakume erretzaileen portzentajea gizonena baino handiagoa da. Diferentzia ez da esanguratsua.
- Norbait ardurapean duten pertsonen artean erretzaile gehiago daude, bai eta etxeko lanetan edo pertsona baten zaintzan egunean bi ordu edo gehiago ematen dituztenen artean ere, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Dena dela, diferentziak ez dira esanguratsuak.

3.4 Psikofarmakoak

Emakumeek gizonek baino psikofarmako gehiago kontsumitzen dituzte. Azken 30 egunetako kontsumoen arteko diferentziak esanguratsuak dira.

3.4.1 Adina


	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
16-34	2,59	1,25	1,95
35-49	4,61	8,19	6,43
50-65	9,45	12,88	11,22

26. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, adinaren arabera: batez besteko portzentajeak

Psikofarmakoen kontsumoa adinarekin lotuta dago, argi eta garbi. Gazteenen taldean (16-34 urte) eguneroko kontsumoa beste bi adin-taldeetan baino askoz txikiagoa da.

Gizonetan, gazteenen taldearen eta zaharrenen taldearen artean baino ez daude diferentzia esanguratsuak. Emakume kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da 35-49 eta 50-65 adin-tarteetan gazteenen tartean baino. Diferentzia esanguratsua da.

Gainera, 16-34 taldean bakarrik da handiagoa psikofarmakoak kontsumitzen dituzten gizonen portzentajea emakumeena baino.




35. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Erregularra	4,73	6,34	5,56
Txandakakoa	3,64	8,81	5,64

27. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Biztanleria orokorrean, ez dago diferentziarik lanaldi erregularra dutenen eta txandaka lan egiten dutenen artean. Datuak sexuaren arabera bereiziz gero, bi joera daude, diferentziak esanguratsuak ez badira ere: emakumeen artean portzentaje altuena txandaka lan egiten dutenena da; gizonen artean portzentaje altuena lanaldi erregularra dutenena da.




36. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Egunekoa	4,57	6,76	5,70
Gauekoa	4,06	5,62	4,48

28. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: batez besteko portzentajeak

Deigarria da psikofarmakoen kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa izatea gaueko txandan lan egiten duten pertsonen artean hala lan egiten ez dutenen artean baino. Datuak sexuaren arabera bereizita, egoera bera dugu. Nolanahi ere, diferentziak ez dira esanguratsuak.




37. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.4 Enplegua

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Landunak	4,44	6,52	5,47
Lan-bila ez dabiltzanak	9,68	11,49	10,66
Langabeak	5,08	8,61	6,77

29. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak

Enplegarritasuna kontuan hartuta, psikofarmakoak egunero kontsumitzen dituztenen portzentajeak handiagoa dira *lan bila ez dabiltzanen* artean *landunen* artean baino, eta diferentziak esanguratsuak dira. Diferentzia horiek ezerezean gelditzen dira datuak sexuaren arabera bereiziz gero, portzentajeen arteko ordenak bere horretan segitu arren.




38. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.5 Lan-mota

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
A. Zuzendaritza	7,96	6,97	7,69
B. Bulegoa	4,83	5,80	5,41
C. Produktzioa	4,37	8,97	4,86
D. Osasuna eta irakaskuntza	2,12	4,30	3,72
E. Lehen sektorea	0,00	0,00	0,00
F. Ostalaritza eta besteak zaintzea	4,70	8,51	6,87
G. Beste batzuk	0,00	31,05	16,27

30. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Ez dago diferentzia esanguratsurik aztertutako sektoreen artean. Nolanahi ere, portzentaje altuenak (Beste batzuk taldea alde batera utzita) hauexek dira: Zuzendaritza (% 7,69), Ostalaritza eta pertsonen zaintza (% 6,87) eta Bulegoa (% 5,41). Aipagarria da, esanguratsua ez izan arren, Produktzioa taldearen barruan gizonen (% 4,37%) eta emakumeen artean (% 8,97) dagoen aldea.




39. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.6 Ikasketak

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Bigarren mailara arteko ikasketak	5,80	10,01	7,73
Unibertsitate-ikasketak	4,93	4,50	4,68

31. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Beste substantzia batzuekin gertatzen den bezala, zenbat handiagoa hezkuntza-maila, baxuagoa psikofarmakoen kontsumoa. Sexuaren arabera, diferentzia handiagoa da emakumeen artean (ia 5 puntu) gizonen artean baino (puntu bat baino gutxiago).




40. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, ikasketamotaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.7 Beste norbait ardurapean

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
EZ	5,64	8,62	7,15
BAI	5,36	5,83	5,59

32. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentziak esanguratsuak ez badira ere, inor ardurapean ez dutenen artean psikofarmakoak egunero kontsumitzen dituztenen portzentajea (% 7,15) handiagoa da norbait ardurapean duten pertsonen artean baino (% 5,59). Gizonen multzoan, bi taldeen arteko diferentzia oso txikia da (puntu erdi baino gutxiago). Emakumeen multzoan, inor ardurapean ez dutenen artean kontsumitzaile-portzentajea ia 3 puntu handiagoa da norbait ardurapean dutenen artean baino: % 8,62 eta % 5,83.




41. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, norbait arduraean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.8 Ardurapeko pertsonaren arretan ematen duen denbora

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
2 ordu baino gutxiago	5,60	7,10	6,27
2 ordu edo gehiago	5,47	8,92	7,59

33. taula. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentziak inolaz ere esanguratsuak ez badira ere, bai orokorrean, bai sexuaren arabera, etxeko lanetan eta norbait zaintzen egunean bi ordu edo gehiago ematen dituzten pertsonen artean handiagoa da egunero erretzen dutenen portzentajea. Gizonen multzoan portzentajeak antzekoak dira, eta apur bat txikiagoak dira lan horietan denbora gehiago ematen duten pertsonen artean.



42. grafikoa. Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.4.9 Psikofarmakoak: emaitzak

- Emakumeek gizonak baino psikofarmako gehiago kontsumitzen dituzte. Azken 30 egunetako kontsumoen arteko diferentziak esanguratsuak dira.
- Biztanleria orokorrean eta emakumeen multzoan, 34 urtetik gora kontsumitzaile-portzentajeak handiagoak dira, eta diferentzia esanguratsuak dira.
- 16-34 urte bitarteko gizon kontsumitzaileen portzentajea adin-tarte horretako emakume kontsumitzaileen portzentajea baino da, baina diferentzia ez da esanguratsua.
- Emakumeen artean, txanda lan egiten duten kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da txandaka lan egiten ez duten kontsumitzaileena baino.
- Psikofarmakoak kontsumitzen dituztenen portzentajea txikiagoa da gauez lan egiten dutenen artean gauez lan egiten ez dutenen artean baino, baina diferentzia ez da esanguratsua estatistikoki.

- Lan-egoerak ere estatistikoki esanguratsuak diren diferentziak eragiten ditu biztanleria orokorrean: psikofarmakoak egunero kontsumitzen dituztenen portzentajea txikiagoa da landunen artean lan egiten ez dutenen eta lan bila ez dabiltzanen artean baino (bigarren multzokoak pertsona inaktiboak dira).
- Kontsumitzaile-portzentaje handiena *Zuzendaritza* taldekoa da % 7,69. Gizon kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da, baina diferentzia ez da esanguratsua.
- Bigarren kontsumitzaile-portzentaje handiena *Ostalaritza* eta pertsonen zainketa taldekoa da: % 6,87. Talde honen barruan, emakume kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da gizonena baino (4 puntuko diferentzia) eta egoera antzekoa da *Produkzioa* taldean, baina diferentzia ez da esanguratsua.
- Kontsumo-eredua beste substantzia batzuen bezalakoa da: zenbat eta altuagoa hezkuntza-maila, gutxiago kontsumitzen da. Dena dela, diferentziak ez dira esanguratsuak. Emakumeen arteko diferentziak handiagoak dira.
- Inor ardurapean ez duten pertsonen artean kontsumitzaile gehiago daude ardurapean inor duen pertsonen artean baino. Eredu hori bi sexuetan mantentzen da. Diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Biztanleria orokorrean, psikofarmakoen kontsumoa zuzenki proportzionala da ardurapeko pertsonen eskaintzen zaien arreta-denborarekiko: zenbat eta dedikazio handiagoa, handiagoa kontsumitzaileen portzentajea.

3.5 Jokoa


Datuen testuingurua finkatzeko: ez dugu aztertu joko patologikoa, baizik eta ausazko jokoen kontsumo orokorra.

3.5.1 Adina

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
16-34	2,57	0,80	1,72
35-49	5,99	2,11	4,03
50-65	6,85	6,10	6,46

34. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, adinaren arabera (batez besteko portzentajeak)

Adinean aurrera egin ahala gora egiten du dirua jokatzeko dutenen proportzioak. 16-34 eta 50-65 adin-tarteen arteko diferentziak esanguratsuak dira estatistikoki. Datuak sexuaren arabera bereizita, joerak bere horretan segitzen du zahartu ahala, baina 16-34 eta 50-65 adin-tarteetako emakumeen arteko diferentziak bakarrik dira esanguratsuak estatistikoki.



43. grafikoa. Sarritan jokatzeko dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


Jokoan aritzen diren gizonen portzentajeak emakumeenak baino handiagoak dira adin-tarte guztietan. Sexuen arteko diferentziarik handiena 35 - 49 adin-tartekoa da: 3 puntu baino gehiago.

3.5.2 Lanaldi-mota: erregularra edo txandakakoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Erregularra	5,31	2,91	4,08
Txandakakoa	5,61	4,07	5,01

35. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, lanaldi-motaren arabera (portzentajeak)

Ez dirudi txandaka lan egitea edo ez egitea dirua jokatzearekin lotutako faktorea denik. Orokorrean, eta datuak sexuaren arabera xehatuta, gehiago dira txandaka lan egiten dutenak, baina diferentziak oso txikiak dira, eta estatistiketarako ez dira adierazgarriak.



44. grafikoa. Jokoa sarritan dabiltzanak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.5.3 Lanaldia, gauekoa/egunekoa

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Egunekoa	5,39	3,26	4,29
Gauekoa	5,30	0,00	3,89

36. taula. Azken hilean sarri jokatu dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: batez besteko portzentajeak

Gauetz lan egiten duten jokalarien portzentajea txikiagoa da egunez lan egiten dutenena baino, baina diferentziak ez dira esanguratsuak, oso txikiak baitira. Nolanahi ere, sexuaren arabera bereizita, apur bat handitzen dira. Izan ere, gizonen portzentajea bi taldeetan ia bera bada ere, emakumeen artean diferentzia dago: gauetz lan egiten dutenetako inork ez du dirua sarritan jokatzen; aldiz, egunez lan egiten dutenen % 3,26k jokatzen dute.

Aurrean esan den bezala, gogoan eduki behar da lagina ez dela aztertutako aldagaia adierazgarria izateko behar den bezain handia.



45. grafikoa. Jokoa sarritan dabiltzanak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak


3.5.4 Enplegua

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Landunak	5,25	2,82	4,05
Lan-bila ez dabiltzanak	4,66	3,26	3,90
Langabeak	6,89	6,45	6,68

37. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak

Esanguratsuak ez badira ere, jokoaren kontsumoan dauden diferentziak aurretik aztertu diren substantzien kontsumoaren eredu beretik doaz: *langabeen taldeko jokalarien portzentajeak eta landunen eta lan bila ez dabiltzanen taldeetako jokalarien portzentajeak oso antzekoak dira.*

Sexuaren arabera, eredia antzekoa da: hiru taldeetan gizon jokalarien portzentajea emakume jokalaria baino handiagoa da, eta diferentziarik handiena (esanguratsua ez bada ere) landunen taldeko emakumeen eta gizonen artekoa da.




46. grafikoa. Sarritan jokatzeko dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.5.5 Lan-mota

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
A. Zuzendaritza	4,21	0,00	3,05
B. Bulegoa	5,18	1,41	2,92
C. Produkzioa	7,74	1,74	7,10
D. Osasuna eta irakaskuntza	0,00	1,57	1,16
E. Lehen sektorea	0,00	0,00	0,00
F. Ostalaritza eta besteak zaintzea	4,47	6,31	5,52
G. Beste batzuk	7,78	24,79	16,69

38. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Alde batera utzita *Beste batzuk eta Lehen sektorea* taldeak, laginean talde horietako erantzule gutxi baitaude, orokorrean, sektore hauetan daude jokalaria-portzentaje handienak: *Produkzioa* (% 7,10%), gizon jokalarien portzentajea oso antzekoa (% 7,74) eta emakume jokalariaena askoz txikiagoa (% 1,74) direla; *Ostalaritza eta pertsonen zainketa* (% 5,52), gizonen portzentajea % 4,47 eta emakumeena % 6,31 direla.




47. grafikoa. Sarritan jotzen dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.5.6 Ikasketak

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
Bigarren mailara arteko ikasketak	5,97	3,61	4,89
Unibertsitate-ikasketak	3,23	2,34	2,70

39. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak

Diferentziak estatistikoki esanguratsuak ez izan arren, zenbat eta baxuago prestakuntza-maila, handiagoa joko kontsumitzen dutenen portzentajea. Gizonek emakumeek baino gehiago jokatzen dute. *Unibertsitateikasketarik egin ez dutenen* taldean, sexuen arteko diferentzia bi puntukoa da; *unibertsitateikasketak egin dituztenen* taldean, gizonen eta emakumeen arteko diferentzia puntu batekoa baino ez da.




48. grafikoa. Jokoan sarritan dabiltzanak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.5.7 Beste norbait ardurapean

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
EZ	4,78	3,06	3,91
BAI	6,30	3,24	4,77

40. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, inor ardurapean duten ala ez kontuan hartuta: batez besteko portzentajeak

Ardurapean norbait duten joko-kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da inor ardurapean ez dutenena baino. Eredua bera da datuak sexuaren arabera bereizita, baina gizonen artekoa handiagoa da (puntu eta erdi) emakumeen artekoa baino. Dena dela, diferentziak ez dira esanguratsuak.




49. grafikoa. Sarritan jokatzen dutenak, inor ardurapean duten ala ez kontuan hartuta: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.5.8 Arretapekoari zenbat denbora eman

	GIZONAK %	EMAKUMEAK %	GUZTIRA %
2 ordu baino gutxiago	4,30	1,32	2,96
2 ordu edo gehiago	7,89	5,77	6,59

41. taula. Azken hilean sarritan jokatu dutenak, etxeko lanetan eta beste inor zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak

Etxeko lanetan eta beste norbait zaintzen egunean bi ordu baino gehiago ematen dituztenen artean jokia kontsumitzen dutenen portzentajea 4 puntu handiagoa da lan horietan denbora gutxiago ematen dutenen artean baino. Diferentzia horiek estatistikoki esanguratsuak dira, bai orokorrean, bai emakumeen multzoan. Aldiz, gizonak kontuan hartuta, diferentziak ez dira esanguratsuak, nahiz eta eredia aurreko bera izan.



50. grafikoa. Sarritan jokatu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak

3.5.9 Jokoa: emaitzak

- Adinak eragina dauka dirua jokatzearekin: biztanleria orokorrean, zenbat zaharrago, jokalaria gehiago. Biztanleria orokorrean eta emakumeen multzoan, diferentzia estatistikoki esanguratsua da 16 - 34 eta 50 - 65 adin-tarteetan.
- Diferentziak estatistikoki esanguratsuak ez badira ere, joko-kontsumitzaileen portzentajea handiagoa da txandaka lan egiten dutenen artean, bai gizonen multzoan, bai emakumeen multzoan.
- Aldiz, egunez lan egiten duten joko-kontsumitzaileen artean, emakumeen portzentajea gizonena baino txikiagoa da, eta diferentzia esanguratsua da.
- Beste adikzio batzuetan bezala, *langabe* kontsumitzaileen portzentajeak dira handienak, bai gizonena, bai emakumeena, baina diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Lan-motaren arabera diferentziak ez dira esanguratsuak. Jokoa kontsumitzen duten pertsonen portzentaje handiena *Produktzioa* taldekoa da (gizonak nagusi direla). Hurrengo taldea *Ostalaritza eta pertsonen zainketa* da; talde honetan emakume kontsumitzaileen portzentajea gizonena baino handiagoa da.
- Zenbat baxuago prestakuntza-maila, handiagoa jokoa kontsumitzen duten langileen portzentajea. Eredua bera da bi sexuetan, diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Norbait zaintzen dutenen artean jokalarien portzentajea handiagoa da inor ardurapean ez duten pertsonen artean baino, bai gizonen multzoan, bai emakumeen multzoan. Dena dela, diferentziak ez dira esanguratsuak.
- Biztanleria orokorrean eta emakumeen multzoan, ardurapeko pertsonaren arretan egunean bi ordu baino gehiago ematen dituzten jokalarien portzentajearen eta gainerako pertsonen portzentajearen arteko diferentzia esanguratsua da estatistikoki.

Ondorioak

Lan-arloan gizartearen kontsumoak islatzen dira, baina lan-baldintza edo lan-mota batzuek eragina dute kontsumo-ereduetan.

Gizartean bezala lan-arloan ere gizonen eta emakumeen kontsumo-ereduak ez datoz beti bat. Substantzia adiktiboak eta jokia kontsumitzen dituztenen artean gizonen portzentajea emakumeen portzentajea baino handiagoa da, psikofarmakoak kontsumitzen dituztenen artean izan ezik, kontsumo horretan emakumeen portzentajea handiagoa baita.

Adinak eragina dauka kontsumo-ohituretan. Alkohola egunero kontsumitzen duten pertsonen portzentajeak gora egiten du adinarekin batera. Aldiz, kalamu-kontsumorik handiena, bai eguneroko kontsumoa, bai eguerdi aurreko kontsumoa, gazteenen adin-tartean gertatzen da (16 - 34 urte). Tabakoa da, agidanez, adinarekin loturarik ez duen substantzia bakarra. Biztanleria orokorrean eta emakumeetan, psikofarmakoen kontsumoa txikiagoa da 16-34 adin-tartean beste bi adin-tarteetan baino ($p < 0,05$). Jokoari dagokionez, biztanleria orokorrean eta emakumeen multzoan, diferentziak daude 16-34 eta 50-65 adin-tarteen artean ($p < 0,05$).

Txandaka lan egiten dutenen artean handiagoak dira alkoholaren, kalamuaren, tabakoaren eta jokoaren kontsumitzaileen portzentajeak. Psikofarmakoen kontsumoaz denaz bezainbatean, gizonen artean kontsumitzaileen portzentajea txikiagoa da biztanleria orokorrean baino. Ostera, emakumeen portzentajea handiagoa da.

Gaueko txandan lan egiten dutenak kontuan hartuta, alkohola kontsumitzen duten emakumeen portzentajea handiagoa da; gizonen artean ez da gauza bera gertatzen. Gaueko txandan lan egiten duten gizonek kalamu gehiago kontsumitzen dute. Biztanleria orokorrean, gehiago kontsumitzen da kalamua eguerdia baino lehen, bai eta tabakoa ere. Egunean 10 zigarreta edo gehiago kontsumitzen dituztenen artean, gehiago dira gizonetakoak; zehatzago esateko, ez dago kontsumo hori egiten duen emakumerik. Psikofarmakoen kontsumoan, gauez ari direnen portzentajeak txikiagoak dira, bai gizonenak, bai emakumeenak. Biztanleria orokorra kontuan hartuta, jokatzen dutenen artean egunez lan egiten dutenen portzentajea gauez lan egiten dutenena baino apur bat handiagoa da.

Ikasketa-mailari buruzko datuak aztertuta, ikasketa-maila baxua dutenen artean tabakoa kontsumitzen dutenen portzentajea nahiko handiagoa da, eta gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa da. Estatistikaren aldetik diferentziak

deigarriak ez badira ere, ikasketa-maila baxuko pertsonen artean handiagoa da aldagai hauetan: kalamua egunero kontsumitzen dutenen portzentajea, kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenena, psikofarmakoak hartzen dituztenena eta dirua jokatzeko dutenena.

Langabezian egoteak kontsumitzaileen portzentajea igotzen du aztertu diren substantzia guztietan bai eta jokoan ere. Pentsa liteke landuna izatea adikzioetatik babesten duen faktorea dela, batez ere gizonen artean.

Produkzioa sektoreko lanetan ari diren pertsonen artean kalamua egunero kontsumitzen dutenen portzentajea handiagoa da Bulegoa sektoreko langileen artean baino. Gauza bera gertatzen da tabakoaren kontsumoan: Produkzioa sektoreko langileek gehiago kontsumitzen dute Bulegoa eta Osasuna eta irakaskuntza sektoreetakoek baino. Dena dela, datuen analisiak bidea zabaldu du datozen inkestetan zenbait gauza hobetzeko lan-jardueraren arabera multzoetan, multzo bakoitzeko langileen lan-baldintzak hobeto islatzeko.

Lan-jardueran eragina izan dezaketen lan-arlotik kanpoko aldagaiei dagokienez, inor ardurapean edukitzea ez da aise aztertzeko aldagaia, galdetzen den bakarra baita ia inor ardurapean baduten, eta ez zenbat denbora pasatzen duten inor zaintzen. Aldagai horren arabera kontsumo-eredua ez da homogeneoa: pertsona horien artean tabakoa kontsumitzen dutenen portzentajea eta jokia kontsumitzen dutenena handiagoak dira, baina txikiagoak alkohola kontsumitzen dutenena, kalamua kontsumitzen dutenena eta psikofarmakoak kontsumitzen dituztenena.

Arreta-denbora aldagaia hartuta, horretan bi ordu baino gehiago ematen dituztenen artean handiagoak dira alkohol-kontsumitzaileen, tabako-kontsumitzaileen, psikofarmako-kontsumitzaileen eta joko-kontsumitzaileen portzentajeak, eta txikiagoa kalamu-kontsumitzaileen portzentajea. Hurrengo inkestetarako, aztertu behar da nola egin daitekeen hobeto galdera hori, arreta-denborak eragina baitauka kontsumo-ohituretan.

Azkenik, 140 pertsonak besterik ez dute esan enpresak prestakuntza eman diotela alkoholaren, tabakoaren edo beste droga batzuen arriskuen gainean edo horien prebentzioaren gainean, hau da, gizonen %10,3k eta emakumeen % 6,5ek. Horrek erakusten du enpresak ez direla jabetzen adikzioen prebentzioaren kontuetan zenbateraino premiazkoa den prestakuntza. Beraz, agerian geratu da enpresetan adikzioak prebenitzeko planak prestatu eta aplikatu behar direla, inplikaturako eragile guztien ardurak argitzeko: enpresenak, langileenak eta haien ordezkarienak, eta prebentzio-zerbitzuetako arloetako arduradunenak. Inkesta honek erakusten duenez, zenbait faktorek eragina dute kontsumo-ereduetan: txandaka lan egiteak, lan-motak, prestakuntzak, adinak eta sexuak, besteak beste. Enpresa bakoitzak bere ezaugarriak dauzka; horregatik, adikzioen kontrako prebentzio-planak enpresa bakoitzaren errealitatera egokitu behar dira eta, gainera, genero-ikuspegia kontuan hartu behar dute, gizonei eta emakumeei babes-maila bera emateko.

Eranskinak

Taulen aurkibidea

1. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: batez besteko portzentajeak	22
2. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	23
3. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, gaueko lanaldiaren arabera: batez besteko portzentajeak	24
4. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak	25
5. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	26
6. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-mailaren arabera: batez besteko portzentajeak	28
7. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak	29
8. taula.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak	30
9. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenen batez besteko portzentajeak, sexuaren eta adinaren arabera	32
10. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	34
11. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: batez besteko portzentajeak	36
12. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak	37



13. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	39
14. taula.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	41
15. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	42
16. taula.	Azken hilean kalamua kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak	43
17. taula.	Azken hilean kalamua egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	45
18. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: batez besteko portzentajeak	48
19. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	49
20. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: batez besteko portzentajeak	50
21. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak	52
22. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	53
23. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak	54
24. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, norbait bat ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak	55
25. taula.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak.....	56
26. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, adinaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	58
27. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lanaldi-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	59

28. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: batez besteko portzentajeak	60
29. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak.....	61
30. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	62
31. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	63
32. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, norbait arduraean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak....	64
33. taula.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak	65
34. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, adinaren arabera (batez besteko portzentajeak)	68
35. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, lanaldi-motaren arabera (portzentajeak).....	69
36. taula.	Azken hilean sarri jokatu dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: batez besteko portzentajeak.....	70
37. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, lan-egoeraren arabera: batez besteko portzentajeak.....	71
38. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, lan-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	72
39. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	73
40. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, inor arduraean duten ala ez kontuan hartuta: batez besteko portzentajeak	74
41. taula.	Azken hilean sarritan jokatu dutenak, etxeko lanetan eta beste inor zaintzen emandako denboraren arabera: batez besteko portzentajeak.....	75

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	23
2. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	24
3. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	25
4. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	26
5. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	27
6. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	28
7. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	29
8. grafikoa.	Azken hilean alkohola egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	30
9. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, adinaren eta sexuaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	33
10. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	34
11. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	35
12. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	35
13. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	36
14. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	37

15. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	38
16. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	39
17. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	40
18. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	41
19. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	42
20. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	43
21. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	44
22. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzen dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	44
23. grafikoa.	Azken 30 egunetan kalamua egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	45
24. grafikoa.	Kalamua eguerdia baino lehen kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	46
25. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	48
26. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	49
27. grafikoa.	Egunean 10 zigarreta baino gehiago erre dituzten pertsonak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	50
28. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	51
29. grafikoa.	Egunean 10 zigarreta baino gehiago erre dituzten pertsonak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	52

30. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	53
31. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	54
32. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, ikasketa-motaren arabera: batez besteko portzentajeak.....	55
33. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: batez besteko portzentajeak.....	56
34. grafikoa.	Azken hilean tabakoa egunero kontsumitu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	57
35. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	59
36. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	60
37. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, eguneko edo gaueko lanaldiaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	61
38. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	62
39. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	63
40. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	64
41. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, norbait ardurapean edukitzearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	65
42. grafikoa.	Azken hilean psikofarmakoak egunero kontsumitu dituzten pertsonak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	66
43. grafikoa.	Sarritan jokatzten dutenak, adinaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	68

44. grafikoa.	Jokoan sarritan dabiltzanak, lanaldi-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	69
45. grafikoa.	Jokoan sarritan dabiltzanak, lanaldia egunekoa edo gauekoa izatearen arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak	70
46. grafikoa.	Sarritan jokatzten dutenak, lan-egoeraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	71
47. grafikoa.	Sarritan jokatzten dutenak, lan-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	72
48. grafikoa.	Jokoan sarritan dabiltzanak, ikasketa-motaren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	73
49. grafikoa.	Sarritan jokatzten dutenak, inor ardurapean duten ala ez kontuan hartuta: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	74
50. grafikoa.	Sarritan jokatu dutenak, etxeko lanetan eta norbait zaintzen emandako denboraren arabera: portzentajeen konfiantza-tarteak.....	75

ZERBITZU ZENTRALAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

Clemente Arraiz margolari, 1
01008 Gasteiz (Araba)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus

